

ESPEZIALITATEAK IREKITA BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEEN KIDEGOAN ETA LANBIDE HEZIKETAKO IRAKASLE TEKNIKOEN KIDEGOAN

Eskabideak aurkezteko epea: abenduaren 7tik 14ra, biak barne

322/2020 EBAZPENA, abenduaren 1ekoa, Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariak emana. Honen bidez, prozeduren deialdia egiten da zenbait espezialitate eta hizkuntzatan berariazko zerrendak irekitzeko eta irailaren 29ko 31/2020 Errege Lege-dekretua aplikatuz izangaien zerrendak osatzeko, Hezkuntza Departamentuaren zerbitzuko irakasle lanpostuak aldi baterako betetze aldera.

GAZTELANIAZ irakatsi beharreko espezialitateak

590 - Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoa:

- Irudi Pertsonaleko Aholkularitza eta Prozesuak
- Fabrikazio Mekanikoaren Antolaketa eta Proiektuak

EUSKARAZ irakatsi beharreko espezialitateak (betekizuna: EGA edo baliokidea)

590 - Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoa

- Enpresen Administrazioa
- Marrazketa
- Ekonomia
- Teknologia

591 - Lanbide Heziketako irakasle teknikoek kidegoa:

- Ekipo elektronikoak
- Merkataritzako Prozesuak

Eskabideak eta agiriak **bakarrik modu telematikoan** aurkeztu behar dira, honako webgune honetan, **TRAMITAZIOA ataleko “Tramitatu”** botoia sakatuta:

<https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/Apertura-de-listas-especificas-mediante-incorporacion-periodica-de-aspirantes-en-determinadas-especialidades-e-idiomas-1>

Hor azaltzen diren urratsak egin behar dira, eta agiri hauek **SOILIK** erantsi:

- **Indarrean dagoen NAN**aren edo nortasun-agiri baliokidearen kopia eskaneatua, bi aldeetatik egina eta dokumentu bakar batean aurkeztua
- Espezialitaterako **eskatzen den** indarreko **tituluaren** kopia eskaneatua, bi aldeena, eta dokumentu bakar batean aurkeztua. Fitxategi bakarra aurkeztu beharko da titulu bakoitzeko, hala xedatzen baita Hezkuntzako kontseilariaren apirilaren 8ko 37/2020 Foru Aginduaren I. eranskineko 1. puntuan
- Zerrendan sartzeko betebeharrak modura alegatu den tituluaren indarreko **expediente akademiko** ofizial osoa, ziklo guztiei dagokiena, zeinean agertuko baita batez besteko nota, dokumentu bakar batean aurkeztua.
- Euskaraz irakatsi beharreko espezialitateetarako: **EGA** titulu edo baliokide indardunaren kopia eskaneatua, dokumentu bakar batean aurkeztua.
- **Prestakuntza pedagogiko eta didaktikoko** masterra edo baliokidea, indarra duena, dokumentu bakar batean aurkeztua, bat etorri Hezkuntzako kontseilariaren apirilaren 8ko 37/2020 Foru Aginduaren I. eranskineko 2. puntuan xedatutakoarekin.

Gaztelaniara edo euskarara itzuli beharko dira atzerriko hizkuntza batean idatzitako agiriak edo beste autonomia erkidego bateko hizkuntza ofizial berekian idatzitakoak. Zinpeko itzultzaileek egin beharko dituzte itzulpen horiek, eta agiriarekin batera aurkeztu beharko dira.

Prestakuntza pedagogiko eta didaktikorik izan ez, baina aipatutako gainerako baldintza guztiak betetzen dituzten izangaien osatuko dute “masterrik gabeko zerrenda (31/2020 ELD)”. Pertsona horiei dei egingen zaie agortzen direnean prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa egiaztatzen duen titulua duten izangaien zerrendak.